

Hegoaldean 90 lan ikuskari gehiago izan daitezela eskatu du ELAk

→ Lan Osasunaren Nazioarteko Egunaren atarian, azaldu du Euskal Herrian laurhun langile hiltzen direla urtero lanaren ondorioz.

Joxerra Senar

Urtea hasi denetik 22 langile hil dira lan istripuen ondorioz Euskal Herrian. Kopuru asaldagarria bada ere, ELAk gogora ekarri du ezkutuan, egunkarietako lerro-buruetatik at, askoz ere langile gehiago hiltzen direla lanak eragindako gaixotasunen ondorioz: laurhundik gora. «Lanak hil egiten du. Ez da zori kontua, ez da zorte txarraren ondorio», nabarmendu zuen atzo Peio Igeregi lan osasuneko arduradunak. Egiturazko egoera hori amaiarazteko, 90 lan ikuskari gehiago jartzea exijitu zuen.

Orain, 75 lan ikuskari daude Hego Euskal Herrian: 21 Nafarroan, eta 54 EAEn. Europako



ELAk manifestazioa egin zuen atzo Iruñean. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

batezbestekora iritsi ahal izateko, 175 ikuskari beharko lirateke; 90 gehiago, alegia.

Igandean izango da Lanaren Nazioarteko Eguna. Atzo, ELAk Labrit pilotalekua bete zuen, eta, ekitaldia amaituta, ehunka afiliatuk manifestazioa egin zuten Nafarroako Parlamenturaino.

Labriten egindako ekitaldian, Igeregi sindikatuko kideei eskatu zien lantoki guztietan borroka egiteko lan osasunaren alde, eta «enpresaburuek larrutik ordaindu» dezatela langileek osasuna galtzea. «Enpresei garesti atera behar zaie lan osasuna galtzea».

Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, urtero, 2,6 milioi langile hiltzen dira lanean, eta horietatik %13 hiltzen dira istripuan. «Gehien-gehienak gaixotasun profesionalen ondorioz

hiltzen dira, eta horiek ez ditugu ikusten». Igeregi gogora ekarri zuen prekaritatea dela lan istripuen zergati nagusia. Osalaren arabera, istripuen erdiak kontratuaren indarraldiaren lehen bi hilabeteetan gertatzen dira, eta kontratuen %56k ez dute hilabete irauten. «Egoera honek arduradunak eta errudunak ditu. Errudunak enpresaburuak dira, eta arduradunak, gobernariak».

Beste hildako bat

Emakume bat hil egin zen Egilazko (Araba) abeltzaintza ustiategi batean, eta haren semea zauritu, behien kolpeen ondorioz. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko iturriek argitu zuten hil berri denak eta zauritua izan denak zerikusia zutela abeltzaintzako ustiategi horrekin, eta lan istripuztat jo zuen. ●

Talaia BHIIn hizkuntzak bultzatzen

Hondarribiako Talaia institutuan, gure ikasleen bizi esperientzia aberasteak hezkuntzan duen garrantziaz jabetuta, urteak daramatzagu elkartrukeak eginez.

Hala nola, Italia edo eta Britainiako eskolak izan ditugu kide lanketa honetan.

Aurten berriz, bigarreniz, batxilergoko lehen mailako ikasle talde batek Danimarkako Aarhus Katedralskole-rekin elkartrukea egin du.

Aurreko astelehenean iritsi ziren Hondarribiara daniarrak eta gure artean bi astez egon dira.

Bueltan, irailean izango ditugu gure ikasleak Danimarkan, Aarhus-en hain zuzen ere. Aukera paregabea gure ohitura, famili, eskola, inguruak eta hizkuntza ezagutu eta lagun berriak egiteko.

Izan ere, hizkuntzek ere lehentasunezko garrantzia dute gure institutuan. Hori horrela, Alliance Française-eko gune aztertzaile ofiziala gara hainbat urtetan zehar eta gure ikasleek frantseseko azterketa ofizialak bertan prestatu eta aurkezteko aukera dute. Aste honetan hasi dira gure DBH4 eta batxilergoko ikasleak B1 eta B2 mailako ahozko azterketak pasatzen eta emaitza pozgarriak izatea espero dugu.



Asteazkenean daniar ikasleekin batera Donibane Loitzunera eta Sarako kobazuloetara irteera egin genuen egun paregabea igaroz eta hemen duzue argazkia honen lekuko.

HITZ GUTXITAN

Akordiorik ez, Mecanerreko negoziazio epean

URDULIZ— Mecaner trokelgintzako lan erregulazio txosteneko negoziazio epea akordiorik gabe amaitu zen atzo. Gauzak hala, ezustekorik ezean, Stellantis autogintza multinazionalak planta itxiko du eta 144 langileak kaleratuko ditu. Ikusteko dago sindikatuek erabakiari helegitea jartzen dioten epaitegietan.

Inoizko gehien fakturatu du Oronak

HERNANI— Bere historian lehen aldiz, Orona igogailu ekoizleak mila milioi eurotik gora fakturatu du. Zehazki, 1.009 milioi, 2022an baino %12,6 gehiago. Langile kopurua ere handitu du, laugarren urtez jarraian: 6.111 ditu. Hernaniko (Gipuzkoa) kooperatibak Mondragon taldea utzi zuen 2022ko abenduan.

DATUA

600

Eusko Jaurlaritzak 2023ko aurrekontuetatik 600 milioi euro utzi zituen gastatu gabe. Bestela esanda, aurrekontuen %96 erabili zituen. Besteak beste diru horretatik aurtengo aurrekontuetarako erabilitakoa kenduta, 440 milioiko soberakina izango du.

Solarisek 354 autobus egingo ditu Erromarako

BEASAIN— CAFen Solaris enpresak bere historiako kontraturik handienetako bat egin du, Beasaingo taldeak azpimarratu duenez. Erromako ATAC operadoreari 354 autobus saldu dizkio, Mild-hybrid modelokoak eta gasa erregai gisa erabiltzen dutenetakoak. 200 milioi euroko operazioa da.

